

Galdera

Gutun formal bat bidali nahi dugu, eta ez dakigu nola jartzen den euskaraz gutun-azalean "A la atención de" edo "ATT"

Erantzuna

Euskarazko gutun-azalean, ez ohi da jarri "*norentzat*:", ezta gutun formalean ere, gure iritzian. Igorlearen datuak atzeko aldean jarri ohi dira, eta hartzailearenak, aurrean; bestela —gutun komertzialetan, batez ere— igorlearen datuak gutun-azalaren aurreko aldean jartzekotan, goiko aldean jartzen dira, eskuinean edo ezkerrean, eta hartzailearenak, berriz, behegera, beste letra-tipo batez nabarmendurik.

1/ Gaztelaniazko laburdura egokia *A/A* da. Gaztelaniazko gutun-azalean, *att.* laburdura ez da egokia. Bikoiztutako *t* hori ingelesezko *attention* hitzaren laburduraren kalkoa da, gaztelaniaz *t* bakarra dago eta. Bestalde, ingelesez ohikoagoa da *Attn*: laburdura.

Ikusi : [Diccionario panhispánico de dudas](#), [Fundéu](#), [#RAEConsultas](#).

2/ Elhuyar Hiztegiak honela jasotzen du *atención* sarreran (formularioetarako):

Lokuzioak

→ a la atención de

-entzat; [*en formularios*] norentzat

a la atención del secretario particular

idazkari pribatuarentzat

a la atención de: E. Lizeaga


norentzat: E. Lizeaga

3/ Gehiago jakiteko, ikusi hauek:

[IVAPen estilo-liburua](#) (Gutun-azalean sartu beharreko datuak, 108. or.; 6.2. Gutuna 253. or. eta hurrengoak)

4/ Hona bi eredu:

Gutun-azala



Gutun-azal komertziala



5/ Ingelesezko bi eredu:

AFFIX
STAMP
HERE

Attention: Corporate Secretary

**Entrée Gold Inc.
Suite 1201, 1166 Alberni Street
Vancouver, BC V6E 3Z3 Canada**

